

## **Sindikatuok EH Bildu eta SUMAR alderdiei kongresuan emendakina aurkezteko eskatu diete, sektore publikoko soldata eta enplegua EAEn negoziatu daitezten**



### **Estatuko azken hauteskundeetan EAEn ordezkariak lortu zuten alderdi politiko guztiei sindikatuok egindako gonbidapenaren ondorioz egin dira gaurko bilerak. Gainerako alderdi politikoek gonbidapena ez onartzea edo erantzun ere ez egitea erabaki dute.**

Gaur, Bilbon, LAB, ELA, CCOO, STEILAS eta ESK sindikatuok deitutako aldeko bilerak egin dira, Madrilgo Diputatuen Kongresurako deitutako azken hauteskundeetan EAEn ordezkariak lortu zuten alderdi politikoekin. EH Bilduko eta SUMAReko ordezkariak parte hartu dute aldeko bileretan. EAJ-PNVk gonbidapenari uko eginez erantzun duen bitartean, PODEMOS, PP eta PSEk erantzun ere ez dute egin.

Bilera horietan, sindikatuok EAeko sektore publikoko azken greba-egunetik hartutako erabakiei eta egoerari buruzko irakurketa helarazi diegu. Gainera, gonbite bat egin diegu bi alderdi politikoei: Madrilgo Diputatuen kongresuan zuzenketa edo emendakin bat aurkezteko. Emendakina onartuz gero, gure herrialdean euskal sektore publikoko 150.000 langile baino gehiagoren enplegua eta soldata hemen erabakitzea ahalbidetuko litzateke.

Sindikatuok EH Bildu eta SUMAR alderdiei eskatu diegu euren botoak Madrilen erabil ditzatela sektore publikoko langileen lan-baldintzak hemen negoziatu ahal izateko. Hamarkada bat baino gehiago da Madrilek, aurrekontu legeen edo antzeko legeen bidez, esparru publikoko sektore guztietako soldaten eta enpleguaren arloko negoziazio kolektiboari betoa jartzen diola. Bada, sindikatuok bi alderdi horiei eskatu diegu beto hori ez dezatela normalizat jo eta ez dezatela sustatu (kasu honetan Sumarrek egin bezala). Autogobernua defendatzeko eta beraien botoak erabiltzeko eskatu diegu, bereziki baliotsuak diren une honetan, gure sektore publikoaren soldata eta enplegu-beharrak hemen negoziatzeko, 80ko eta 90eko hamarkadetan egiten zen bezala. Borondate politikoa baldin badago, posible da.

Bestalde, bilerara etortzeko gonbidapenari uko egin dioten alderdiei aipaturiko emendakina bidaliko diegu. Eta emendakinarekin batera, alderdi politiko horiekin biltzeko borondatea berretsi dugu, eta hala egiteko gonbidapena luzatuko diegu, nahi duten formatuan eta lekuan biltzeko borondatea adieraziz, helburu argi batekin: alderdi politiko horiek euskal sektore publikoko lan-baldintzak eta enplegua gure herrian erabakitzeko aldarrikapena bere egin dezatela eta beraien botoak ere erabil ditzatela autogobernua defendatzeko eta betoarekin amaitzeko.

Azkenik, sindikatuok elkarretaratzek egingo ditugu maiatzaren 27an. Bata EUDEL-en aurrean izango da, 10:30ean, eta bestea Eusko Jaurlaritzaren aurrean, 11:30ean. Hala, euskal erakundeei eskatuko

diegu Espainiako Gobernuaren azpiordezkaritza huts gisa funtzionatzeari utz diezaiotela, beren eskumenak erabil ditzatela, zerbitzu publikoak indartu ditzatela, pribatizazioak alde batera utz ditzatela, enplegu publikoa sor eta finka dezatela eta euskal herritarrei kalitatezko zerbitzu publiko unibertsalak bermatzen dizkieten langile publikoen lan-baldintzak hobetu ditzatela.